



Isastegiko sagardoa, munduko 100 sagardoren artean aukeratu dute

Iñigo Terradillos 2018-10-09 10:40



Susanna Forbes kazetari eta idazle britaniarrak mundu osoko sagardo eta sagardotegiaren gida osatu du 'The Cider Insider' liburuan. Euskal Herriko zazpi sagardo aukeratu ditu, eta horien artean da Tolosako Lasa familiaren Isastegi.

Susanna Forbesek argitaratu berri duen 'The Cider Insider. The essential guide to 100 craft ciders to drink now' liburuak mundu osoko 100 sagardo artisauek eta sagardotegirik aipagarrienak biltzen ditu.

Ardoan, garagardoan eta sagardoan espezializatutako kazetari eta idazlea da Forbes, eta osatu duen gida sei urteko ikerketaren emaitza da. Idazle eta kazetari britaniarrak sagardoa ekoizten duten mundu osoko lurralde nagusiak zeharkatu ditu urte horietan: Ingalaterra, Britainia, Normandia, Alemania, Australia, Zelanda Berria, Kanada... eta 2018ko martxoan Euskal Herria.

Bada, bisita hartan ezagututako zazpi euskal sagardo hautatu ditu bere libururako, eta horien artean da Tolosako Isastegi Sagardotegiko Euskal Sagardoa, *txapelgorri* bezala ezagutzen dena.

«Joan den urteko uztako sagardoa da. Izugarria izan zen lehengo urteko uzta, eta sagardo asko eta ona egiteko aukera izan genuen. Hala ere ez zen azken produktuan bakarrik zentratu. Sagardotegiaren historia, bilakaera, kokalekua eta inguruak ere interesatzen zitzaizkion. Gure lan egiteko modua ere azaldu nizkion sagardotegira egindako bisitan. Zerbait zabalagoa nahi zuen», dio Joseba Lasa, Isastegiko arduradunak.

Joan den astean aurkeztu zuten liburua, Sagardoaren Kultura eta Turismoaren I. Topaketaren testuinguruan, Astigarragako Iretza sagardotegian. Nazioarteko ordezkariekin esperientziak elkarbanatzeko eta beste txoko batzuetako sagardo zapo ezberdinak dastatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.

[JOSEBA LASAI ELKARRIZKETA, AUDIOAN]

GASTRONOMIA

TOLOSA

Erantzun



Quien esbea
(euskaraz) 105 min. Deneratzen

Abenduak 23, igandea
Udare erraldoiaren
istorio arrigamia
(euskaraz) 80 min. Deneratzen

Abenduak 29, larunbata
Urtamalak 2, asteazkena
Animales fantásticos: los
crimenes de Grindelwald
135 min. +7

Abenduak 30, igandea
Urtamalak 4, ostirala
Ralph rompe internet
110 min. Deneratzen
(bonudunek + 3,5 €)

Bonuen salmenta! Menda de Bonos!
El precio de venta de los bonos es de 1,50 €



TOLUSA
Zinea
Abendu-Urtamala
2018-2019

Urtamalak 13, igandea
Kika superbruja, nueva
aventura de invierno
100 min. Deneratzen

Urtamalak 20, igandea
Ploey, ez du inoiz bakarrik
egan egingo
(euskaraz) 100 min. Deneratzen

Haurren zine emanaldietarako urteko azken bonuak, larunbatetik aurrera salgai

urteko

bonuak



N-1eko Amaroako sarrera-irteeran biribilgunea eraiki eta Bedaioko errepidea konponduko ditu Aldundiak



Izaskun jatetxea, ixtear



Babarrunak eta euskara, bat eginda Ibarra

Ikusienak



Festa bat eta 7.500 kroketa

Josu Artutxa abe 09, 19:30 [IBARRA](#)



30 urte elkarrekin lanean

Tolosaldeko Ataria abe 09, 19:10 **TOLOSA**



N-1eko Amarozko sarrera-irteeran biribilgunea eraiki eta Bedaioko errepidea konponduko ditu Aldundiak

Tolosaldeko Ataria abe 10, 10:59 **TOLOSA** 1



 Komunitatea

Bigarren aldiz, Urritz Makila Beñat Iguaranentzat

 Harituz Bertsozale Bilgunea **abe 10, 14:05** **AMASA-VILLABONA ASTEASU**



Haurrentzako zirku tailerrak, Gabonetan, Gure Zirkuaren eskutik

Tolosaldeko Ataria **abe 10, 12:19** **TOLOSA**



Amezketako argazki lehiaketako saridunen izen-abizenak argitaratu dituzte

Tolosaldeko Ataria abe 10, 15:28 **AMEZKETA**

Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.

San Esteban, 20 Tolosa 20400

Telefonoa: 943 65 56 95

ataria@ataria.eus

Publizitatea: publi@ataria.eus / 661 678 818

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO

RSS

Bai euskarari

Bikain

arrosa
irratien sarea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

